



BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Komunikazio kanalen bitartez bezeroei gure zerbitzuen, hau da Legazpi eta Zumaia lotzen dituen bidegorrian eskaintzen ditugun aktibitateen buruzko informazioa eskuratu dezakete. Gure komunikazio kanalak hauek izango dira:

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko eskola eta ikastolen zuzendaritzarekin harremanetan jarriko gara. Hauei gure enpresa zertan datzan azaldu eta bertako gazteak gure zerbitzuak jasotzera animaraziko genituzke. Horrela, eskola hauetako ikasle eta hauen gurasoek gure enpresaren inguruan entzungo dute.

Bestalde, Urola Greenwayen berri jakinarazteko eta gure zerbitzua bezeroengana iristeko metodotako bat inguruko turismoarekin erlazionatutako zentroekin harremanetan jartzea da, turismo bulegoekin, kanpingekin, hostatuekin, interpretazio zentroekin... Modu honetan, eskualdetik igarotzen diren kanpotar gehienak leku hauetatik pasatzen direnez, gure bezeroengana hurbildu gaitezke.

Honez gain, sare sozialetan profil bat izango dugu, gure famili eta lagunekin hitz egin eta beraiek beren perfiletan gurea gomendarazi jendea erakartzeko. Hau dela eta, ikusle gehiago izan beharko genituzke, eta honetaz baliaturik, gure enpresaren berriak argitaratuko ditugu gure perfilean. Hau da, zein egunetan eta zein ordutan gauden eskuragarri, zer eskaintzen dugun, bidearen argazkiak... Honez gain, gure bezeroak bidegorritik pasatzen ari diren bitartean, argazkiak atera diezazkiekegu, ordaintzen badute, eta gero, beraien baimenarekin argazki hauek argitaratu Instagramen, esaterako, bezeroek dezaten zer nolako esperientzia eskaintzen dugun. Ildo beretik, euskal influentzerrekin kontakta dezakegu gurea den bezalako bertako enpresa bat promozionatzeko, hashtagak erabil ditzateke gure enpresaren izenarekin ospea lortzeko...

Baitere, interneteko mundutik ireten gabe, existitzen duten online orrialdeetan gure enpresaren izena gehitu dezakegu. Hobeto ulertzeko, Tripadvisor web orrialdea milaka eta milaka jendeak bisitatzen duenez, perfil bat sortu dezakegu jendeak Urola Greenway enpresa ezagun dezan. Orrialde honez gain, euskadi.eus orrian gure izena sartu dezakegu. Izan ere, ohikoa da euskaldunak ez diren pertsonentzat Euskal Herria bisitatu behar dutenean orri horretatik pasatzea. Hau dela eta, hona



datozen turistek gure enpresaren berri jakingo dute eta zorionez gure zerbitzutan parte hartu. Euskadi.eus orria bezalaxe Vias Verdes izeneko orri bat dago interneten non Espainiko bide berde guztien informazioa ematen duen, beraz, gure enpresa bertan azaltzea ere komenigarria izango litzaiguke.

Kartelak ere jarri ditzakegu herri desberdinetako hainbat lekutan bertako bizilagunen jakin-mina pizteko eta bezero berriak erakartzeko. Horrelako jarduera batean parte hartzeko gogoia izatea baina interneten bitartez informazioa eskuratzeko zailtasunak izatea posible liteke. Hortarako kartelak ere egongo dira gure zerbitzuaren informazioa eskuragarriago izateko. Gainera, udaletxeak gure enpresaren zerbitzuak proposatu ditzake helduen txangoetan, adibidez, eta horrela, ospe hobia lortu helduen artean.

Sare sozialetaz baliaturik, gure enpresak webgune bat izango du non gure bezeroak informazio gehiago eskuratzeko erabili ahal izango duten. Zalantzak argitzeko, gure emaila ezarriko genuke orrian, eta honez gain gure lokaleko kokapena ere jarriko genuke bezeroekin harreman estuagoa lortzeko eta hauen zalantzak argitzeko. Honen ondoren, galdetzaileei kalifikazio orri bat eman diezaiekegu gure laguntzaren ingurukoa eta berrikuspenak web orrialdean jarri bezeroekiko gertukoak izateko.

Metodo hauek nahikoa izango ez balira, harreman publikoak sustatzeko kanpainak ere egin ditzakegu gure enpresaren informazioa jende gehiagori helarazteko. Adibidez, jende asko egon ohi den ekitaldi ezberdinetan parte har genezake, gure enpresaren inguruan aurkezpen bat eman ahal izateko eta hauengan interesa sortzeko, adibidez. Baitere, gure zerbitzuak azoketan ezarri ditzakegu denentzat eskuragarri izan daitezen, izan ere, azokak produktu edo zerbitzu berrien bila dauden pertsonak elkartzen ditu, zerk gure enpresari hazten lagundu diezaiokeen.

Amaitzeko, komunikazio-kanalaren helburua zerbitzuak bezeroei modu eraginkorrean helaraztea da. Horretarako ondorengo kanalak erabiliko genituzke: Kanal zuzen bezala, web orria erabiliko genuke, Urola Greenwayen inguruko informazioa eskuragarria izan dadin guztientzat. Bestalde, zeharkako kanal bezala iragarkiak egin ditzakegu euskal telebistako programaren batekin harremanetan jarritz.

